

Euskaraz? Inoiz baino errazago

Euskaraz irakurtzen trebatzeko kanpaina jarri dute martxan EGUNKARIAk, EKBk eta euskaltegiek

Iñaki Petxarroman / Donostia

Euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duten euskaldun eta ia euskaldunek horretarako zaletasuna eta ohitura har dezaten, kanpaina bat hasi dute EGUNKARIAk, EKBk eta euskaltegiek (AEK, IKA, udal euskaltegiak eta beste). Euskaltegiek 50 orduko ikastaro berezituak eskainiko dituzte, eta EGUNKARIAk harpidedun egiteko aukera, dena moduzko prezioan.

KANPAINA atzo aurkeztu zuten Donostian. Han ziren Mikel Sorozabal, EGUNKARIAko Sustapen Saileko burua; Maider Etxaniz, EKBko kanpainako arduraduna; Joxe Leon, AEK-ko irakaslea; Gurutze Zubia, Beasaino Udal Euskaltegiko irakaslea; eta Ixidro Yoldi, Donostiako Urrats euskaltegiko zuzendaria.

EKBko kide Maider Etxanizen esanetan, kanpainaren bidez euskarazko idatzizko produktu hau «egunero edo maiztasunez» kontsumi dadin eragin nahi dute, egunkaria irakurlearengana hurbilduz eta gainera ikastaroen bidezko laguntza eskainiz, euskaraz irakurtzeko trebetasuna eta zaletasuna har dezan. Nabarmendu zuen asko direla euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duten euskaldun eta ia euskaldunak, eta horretarako hamaika arrazoi daudela: erdaraz irakurtzeko ohitura barneratu izana, euskara maila nahikoa ez izatea, eguneroko berriak euskaraz irakurtzea arrotz gertatzea...

Horregatik, zailtasun horiek gainditzen joateko garrantzitsua da laguntza teknikoa eskaintzea, Etxanizek azaldu zuenez. Laguntza hori hainbat herritako euskaltegiak emango dute 50 orduko trebatze ikastaro berezien bidez. Horrez gain, EGUNKARIA erabiliko da tresna gisa ikastaroak osatzeko.

Ikastaroak eta harpidetza, oso moduz

Mikel Sorozabalek azaldu zuenez, bi eskaintza mota egingo zaizkie interesa dutenak: batetik, ikastaroa eta EGUNKARIAren urte osoko harpidetza 27.000 pezetaren truke; bestetik, ikastaroa eta EGUNKARIAren hiru hilabete-ko harpidetza 12.500 pezeta-



JON URBE

Ezkerretik hasita, Gurutze Zubia (Beasaino Udal Euskaltegia), Mikel Sorozabal (EGUNKARIA), Maider Etxaniz (EKB), Ixidro Yoldi (Urrats euskaltegia) eta Joxe Leon (AEK), atzoko agerraldian.

esanak

× **Mikel Sorozabal** (EGUNKARIA): «Askotan entzuten zaie euskaraz hitz egiteko eta ulertzeko batere arazorik ez duten euskaldunei zailtasun handiak dituztela EGUNKARIA irakurtzeko; bereziki horiengana zuzendua da eskaintza hau»

× **Joxe Leon** (AEK): «Euskaltegira alfabetatzera etortzen direnek izugarrizko mesfidantza izaten dute normalean, uste baitute ezinezkoa dutela euskaraz irakurtzea; guk egoera horri erantzun nahi diogu ikastaro honekin, eta euskaraz irakurtzea posible dela erakutsi»

× **Gurutze Zubia** (Beasaingo Udal Euskaltegia): «Euskaltegi bakoitzak bere metodologia erabiliko du, baina denok saiatuko gara lehendik euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duenari halako estrategia batzuk erakusten, irakurtzeko ditugun beldur eta oztopoak uxatzeko»

× **Maider Etxaniz** (EKB): «Kanpaina aitzindaria denez, lehenik herri euskaldunetan frogatuko dugu zelan ateratzen den; hor izaten diren emaitzen arabera, beste eremu batzuetara zabal dezakegu datorren irailean»

ren truke. Bigarren horretan, gainera, aukera izango da ikastaroa bukatutakoan harpidetzaren eskaintza beste bederatzi hilabetez luzatzeko 15.000 pezetaren truke. Ikastaroetan izena ematen dutenek etxean jasoko dute egunero euskarazko kazeta.

EGUNKARIAren urte osoko

harpidetza 40.400 pezeta kostatzen da.

Euskaltegietako hiru arduradunek nabarmendu zuten euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duten euskaldunei erakutsiko dietela posible dela euskaraz ongi irakurtzea zailtasun tekniko batzuk gainditu ondoren.

Ikastaroa emango duten euskaltegiak

• Ondorengoak dira aurtien 50 orduko ikastaroa eskainiko duten euskaltegiak. Marbotik aurrera hasiko dira han-hemen.

OTSAILAN

1. Lazkaoko Maizpide
2. Lazkaoko AEK
3. Andoaingo AEK
4. Asteasuko AEK
5. Bergarako AEK
6. Eibarko AEK
7. Elgoibarko AEK
8. Soraluzeko AEK
9. Oñatiko Udal Euskaltegia
10. Hernaniko AEK
11. Hernaniko Udal Euskaltegia
12. Durangoko Udal Euskaltegia
13. Bortzirietako IKA

MARTXOAN

1. Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia
2. Lasarte-Oriako AEK
3. Tolosako AEK
4. Billabonako AEK
5. Beasaingo Udal Euskaltegia
6. Beasaingo AEK
7. Oiartzungo AEK
8. Lezoko AEK

9. Usurbilgo AEK

10. Irungo AEK
11. Orereta-Errenterriako AEK
12. Orereta-Errenterriako Ortzadar euskaltegia
13. Derioko Udal Euskaltegia
14. Galdakaoko Udal Euskaltegia
15. Etxarri-Aranazko AEK
16. Baztango AEK
17. Gasteizko AEK

APIRILEAN

1. Donostiako Legazpi euskaltegia
2. Donostiako Urrats euskaltegia
3. Donostiako AEK
4. Donostiako Uli Alde
5. Donostiako Urumea Rikardo Arregi euskaltegia
6. Donostiako Monpas euskaltegia
7. Zarauzko AEK
8. Debako AEK
9. Mutrikuko AEK
10. Azpeitiko AEK